



Nº Expte: 000037/2014-A.20
07-05-2014

ONDOKO LOKALEN MANTENTZE-GARBIKUZI ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA (PROZEDURA IREKI ETA TRAMITAZINO ARRUNT BIDEZKOA) ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA AMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA: LEGARDA ETA LAUKARIZ IKASTETXEAK; KOMUN PULBIKOAK; OBRA ETA ZERBITZUEN PABILOIA; UDAL BULEGOAK; EPAITEGIA; OLENTZEROREN ETXEA; HHE; ANDRA MARIKO LOKALAK; BABES ZIBILEKO ETA GURUTZE GORRIKO LOKALAK; ETA ERABILERA ANITZEKO ERAIKINEKO LOKALAK.

1. KONTRATUAREN HELBURUA

Agiri honetan oinarrituko den kontratuaren helburua ondoko lokalen garbiketa-zerbitzua eskaintzea da: Legarda eta Laukarizko ikastetxeak, komun publikoak, obra eta zerbitzuen pabiloia, udal bulegoak, epaitegia, Olentzeroren etxea, HHE, Andra Mariko lokalak, Babes Zibileko eta Gurutze Gorriko lokalak, eta erabilera anitzeko eraikineko lokalak; eta Baldintza Teknikoen Agirian deskribatutako zerbitzuak eskainiko dira.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua arautzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Lege Dekretuaren 10. artikulua ezarritakoari jarraituta, kontratu hau zerbitzu-kontratua da eta bere beharrezana eta egokitasuna zerak ezartzen du: udal eraikinetzako garbiketa-zerbitzua kontratatu beharrik. Garbiketa-zerbitzu aproposa izan beharko du eta lokal horien erabilera, dimentsio eta ezaugarrietara egokitua.

Kontratuaren helburua kontuan izanda, hauxe da kontratu honi dagokion CPV kodea: 90.911200-8

2.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Agiri honek arautuko duen kontratua administratiboa da eta, beraz, agirietan aurreikusita ez dauden egoeretarako, ondoko araudiak ezarritakoa bete beharko da: batetik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua arautzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Lege Dekretuak ezarritakoa, eta bestetik, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartua.

Osagarri modura, oinarritzko izaera ez duten kontratu publikoen gaineko estatu-arauak aplikatuko dira, baita zuzenbide administratiboko gainerako arauak ere, eta azkeneko horien faltara, zuzenbide pribatukoak.

3.- ADJUDIKAZIO PROZEDURA

Kontratu hau erregulazio harmonizatuaren arabera arautuko da, tramitazio arrunt bidez, prozedura irekia erabilita, eta adjudikaziorako hainbat irizpide hartuko dira kontuan; ondoko legeek eta arauak ezarritakoari jarraituta: batetik, SPKLTBren 138. artikulutik 161. artikulura bitartekoak, eta bestetik, erregulazio harmonizatura lotutako kontratuentzat ezarritako arau bereziak.

Prezioaz gain, eskaintza ekonomikorik egokiena aukeratzeko, beste irizpide batzuk ere hartuko dira kontuan, Agiri honen 18. baldintzan agertzen denari jarraituta.



4. FINANTZIAZIOA

Kontratuaren prezioaren ordainketa aurtengo aurrekontutik finantzatzea aurreikusi da, ondoko partidetatik:

- 1.- 22-42111-22701
- 2.- 22-42116-22701
- 3.- 22- 4133-22701
- 4.- 22- 4363-22701
- 5.- 22- 4341-22701
- 6.- 01- 1240-22701
- 7.- 22- 4500-22701
- 8.- 22- 4215-22701
- 9.- 22- 4345-22701
- 10.- 22- 2231-22701
- 11.- 22- 4121-22701
- 12.- 22- 4521-22701

Era berean, aurrekontu gaietan eskuduna den organoak, kontratu honek sortuko dituen betebeharrei erantzute aldera, konpromisoa hartzen du datozen urteetako jardunaldietako aurrekontuetan kredituak erreserbatzeko.

5.- KONTRATUAREN PREZIOA

Urteko aurrekontua laurehun eta bederatzi mila eta bi euro eta berrogeita hamazazpi zentimokoa izango da (409.002,57€), BEZ gabe, eta horri %21eko BEZari dagozkion beste laurogeita bost mila zortziehun eta laurogeita hamar euro eta berrogeita lau zentimo gehitu behar zaizkio (85.890,54€). Guztira: laurehun eta laurogeita hamalau zortziehun eta laurogeita hamahiru euro eta hamaika zentimo (494.893,11€).

Kontratuaren balio estimatua miloi bat seihun eta hogeita hamasei mila eta hamar euro eta hirurogeita zortzi zentimokoa da (1.636.010,28€), BEZ gabe.

Lizitaziorako ezarritako oinarritzko aurrekontua gainditzen duten proposamenak baztertu egingo dira beste barik. Adjudikazioa prezio baxuagoan ematen bada, urte bakoitzean ordaindu beharrekoari beherapen proportzionala aplikatuko zaio.

6.- BURUTZE-EPEA

Zerbitzua emateko epea urte Biko izango da, kontratua formalizatzen denetik kontatzen hasita. Kontratua beste bi urte luzatzeko aukera egongo da, alde biak ados egonez gero, hala ere, ezingo du inoiz (luzapen eta guzti) lau urtetik gorako iraupena izan. Adjudikaziodunak kontratuaren amaiera data baino gutxienez ere hiru hilabete lehenago eskatu beharko du luzapena.

7.- ORDAINKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, kobrantza-agiria aurkeztu eta ontzat emandakoan egingo da, era honetara:

Hil amaieran, hil horretan egindako lanen fakturak aurkeztu beharko dira udal honetako Sarrera Erregistro Orokorrean. Faktura horretan agertu beharko dute, batetik, egindako lanen kontzeptuek eta euroi dagozkien kopuruek, eta bestetik, BEZa (datu biak banan).

Komunikazio guztietan –kontratu honekin lotuta adjudikaziodunak aurkezten dituen fakturak barne– agertu beharko du espediente zenbakiak: 000037/2014-A-20



8.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Prezioak ez dira berrikusiko. Ez da inondik inora ere onartuko adjudikatze-unean aurreikusi ezin diren gorabeheren ondorioz kosteak aldatzea (burutze-fasean), eta gorabehera horiek ezingo dira prezioak aldatzeko nahiko arrazoitzat hartuko (berrikusteko teknika erabilita).

9.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez da eskatuko.

10.- BEHIN BETIKO BERMEA

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatuileari Kontratazio Organoak errekerimendua egingo dio hamar laneguneko epean (errekerimendua jaso duen hurrengo egunetik gora) kontratuaren bermetzat adjudikazioaren zenbatekoaren %5a eratu duela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkez dezan.

Ezarritako epe horretan errekerimenduari behar bezala erantzun ezean, lizitatuileak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da, eta hurrengo lizitatuileari (eskaintzek lortu duten sailkapen ordenari jarraituta) eskatuko zaio dokumentazio hori,

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 96. artikulua ezarritako bidean arabera eratu ahal izango da, SPKLTBren 55. artikuluan eta ondokoetan ezarritako baldintzak beteta.

Behin betiko bermeak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 100. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei erantzun beharko die.

Bermeak bueltatzea eta ezereztea ondoko lege-artikuluen arabera arautuko da: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 102. artikulua; eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorren 65.2 eta 3 artikulua.

11.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridikoek –espainiarrek zein atzerritarrek– parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta beren ekonomi eta finantza-kaudimena eta gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan zehazten diren kontratatzeko debekuetakoren bat ere ez badute. Kaudimena egiaztatze eta ebaluatze bideak, 14.4 baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez jardun ahal izango dute. Pertsona juridiko baten izenean bere kide bat datorrenean, agiri bidez justifikatu beharko du horretarako ahalmena duela. Bi kasuetan ere, kontratatze gaitasunik eza dakarten arrazoiek, gorago aipatutakoek, ordezkariari ere eragiten diote.

Era berean, proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 59. artikuluan xedatutakoaren arabera aldi baterako enpresa-elkartea eratzen duten enpresek. Elkartea osatzen duten enpresaburuak bakoitzak egiaztatu beharko ditu bere jarduteko gaitasuna, kaudimen ekonomiko nahiz finantzarioa eta sinesgarritasun tekniko nahiz profesionala, hurrengo baldintzetan aipatzen den dokumentazioa aurkeztuz, eta dokumentu pribatu batean hauek adierazi beharko dituzte: proposamena izenpetu duten enpresaburuaren izenak eta zirkunstantziak; haietako bakoitzaren parte-hartzea; kontratuak indarrean iraun bitartean, Administrazioaren aurrean haiek guztiak erabat ordezkatzeko dituen pertsona edo entitateak; eta beren gain hartzen dutela aldi baterako enpresa-elkartea eratze konpromisoa (Administrazio Publikoko Kontratuen Legearen



Erregelamendu Orokorren 24. artikulua). Dokumentu hori enpresa-elkartea osatzen duten enpresa guztietako ordezkariak sinatu beharko dute.

12.- SAILKAPENA

U taldea, 1 azpitaldea, C kategoría

13.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Proposamenak Udaletxeko Erregistro Orokorreko bulegoan (Harrera Bulegoa) aurkeztu beharko dira, 9:00etatik 13:00etara, proposamenak aurkezteko epearen barruan, edozein egun baliodunetan. Lizitazio iragarkia ondoko aldizkari ofizialetan argitaratuko da: Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAO), Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Proposamenak aurkezteko epea egutegiko berrogei (40) egunekoa izango da, iragarkia EBAOra bidaltzen den egunetik kontatuta. Dena den, lizitazioaren iragarkietan adieraziko da zein egunetan amaitzen den eskaintzak aurkezteko epea.

Lizitatuzaileak bere proposamena postaz bidaltzen badu, Postetxean bidalketa egin duen eguna justifikatu behar du eta egun berean (13:00ak baino lehenago) eskaintza bidali duela jakinarazi Kontratazio Organoari fax edo telegrama bidez. Bi baldintza horiek betetzen ez badira eta kontratazio-organoak proposamena epea (eguna eta ordua) amaitu ostean jasotzen badu, ez da onartuko. Hala ere, ezarritako epe-muga pasatu eta hurrengo 10 egun naturaletan proposamena heldu ez bada, ez da inola ere onartuko.

14.- PROPOSAMENEN FORMA ETA EDUKIAK

Proposamen bakoitzak HIRU (3) GUTUN-AZAL izan beharko ditu. Gutun-azal horiek itxita eta lizitatuzaileak edo ordezkariak sinatuta egon beharko dute. Gutun-azal guztiek egon beharko dute lizitatuzaileak sinatuta eta ondoko datuek izan beharko dituzte identifikatzeko: kontratuaren helburua / espediente zenbakia / sozietatearen izena, IFK / ahaldunaren izena, NANA / harremanetarako telefonoa. Gutun-azalen barruan, bertan sartu diren dokumentu-zerrendak agertu beharko du. Gutun-azalak honako hauek izango dira:

1) A GUTUN-AZALA: "DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA". Gutun horretan ondoko dokumentuak sartu beharko dira:

1.- Jarduteko gaitasuna.

1.1.- Lizitatuzailea pertsona fisikoa baldin bada: NANA edo legez beroren ordezkari den dokumentuazioaren kopia –indarrean dagoen dokumentuen egiazkotasuna bermatzeko ezarritako formatuan– edo horretarako eskumena duen funtzionarioak konpulsatutako fotokopia. Horretaz gain, beste pertsona edo erakunde baten ordezkari modura agertuz gero, notario-ahalordea ere aurkeztu beharko da.

1.2.- Lizitatuzailea pertsona juridikoa baldin bada: eraketa edo aldaketaren eskritura (Merkataritza Erregistroan behar den bezala inskribatua), betiere, kontratu honi dagokion merkataritza-legediak baldintza hori eskatzeko agintzen badu. Baldintza hori bete behar ez bada, ondoko dokumentuak aurkeztu beharko dira: batetik, eraketa eskritura edo dokumentua, bestetik, estatutuak edo sorrerako ekintzaren dokumentua (haietan jardura zehazten duten arauak agertuko dira eta, hala egokitzuz gero, erregistro ofizial egokian egongo dira inskribatuta); eta azkenik, Identifikazio Fiskaleko Kodea (IFK).

1.3.- Aldi baterako enpresa-elkartea baldin bada: Enpresa-elkarte hori osatzen duten enpresa guztietako kide batek (bakoitzetik batek) bere ahalmena, nortasuna, ordezkari eta kaudimena egiaztatzen dituen dokumentua aurkeztu beharko du.



1.4.- Espainiakoak ez diren enpresak badira, baina Europako Erkidegoko estatuetaoak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmena sinatu duten estatuetaoak badira: jarduteko gaitasuna lanbide-erregistroan edo merkataritza-erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, betiere, dagokion Estatuko legediak hala eskatzen badu.

1.5.- Aurreko paragrafoan sartzen ez diren atzerriko enpresak baldin badira: Espainiako Misió Diplomatiko Iraunkorraren edo enpresak egoitza duen herrialdeko Espainiako Bulego Kontsullarraren txostena aurkeztu beharko dute — gainerako dokumentazioarekin batera—. Txosten horrek zera adierazi beharko du: atzerriko enpresaren jatorriko estatuak ere onartzen duela Espainiako enpresek parte hartzea euren Administrazioarekiko kontratazioan, baita hango sektore publikoko erakunde edo entitateekiko kontratazioan ere (SPKLTBren 3. artikulua ezartzen du erakunde horien zerrenda); eta Espainiak egiten duen era bertsuan onartzen duela parte hartze hori. Horretaz gain, enpresa horiek sukurtsala izan beharko dute Espainian, eta ahaldunak edo ordezkariak izendatuta bere jardueretarako; eta Merkataritza Erregistroan izena emanda egon beharko dute.

1.6.- Atzerriko enpresek dokumentazioa gaztelerara modu ofizialean itzulita aurkeztu beharko dute.

2.- Erantzukizunpeko deklarazioa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan kontratatzeke ezartzen diren debeku-egoeretan ez dagoela egiaztatzen duena. Dokumentu horretan berriaz azalduko da lizitatzaila egunean dagoela indarreko xedapenek ezarritako zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan; ezpada, egoera horren egiaztatze-ziurtagiriak aurkezten direla.

3.- Erantzukizunpeko deklarazioa, genero-diskriminazioa dela medio zehapen administratibo edota penalik ez dagoela egiaztatzen duena.

4.- Erantzukizunpeko deklarazioa, ingurumenaren kontrako jarduerengatik zehapen administratiborik ez penalik ez dutela egiaztatzen duena.

4.- Erantzukizunpeko deklarazioa, Berdintasun Plana aplikatzen duela egiaztatzen duena (plegu honetako 25. baldintzan ezarrita dagoenari jarraituta).

6.- Enpresaren helburuei eta bere antolamenduari buruzko akreditazioa.

Lizitatzailaek zera egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute: pertsona fisiko edo juridiko horrek duen helburuak kontratu honen helburuarekin lotura zuzena duela, eta hala agertzen dela jasota euren estutueta edo eraketa araudian. Era berean, kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezko diren elementu pertsonal eta materialak dituztela egiaztatu beharko dute.

7.- Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala.

Kontratista U Taldekoa, 1. Azpitaldekoa eta C Kategoriakoa dela egiaztatzen duen dokumentua.

8.- Aldi baterako enpresa-elkarteak.

Hainbat enpresak aldi baterako enpresa-elkarte modura jotzen badute lizitazioa, lizitazioaren aurre-fasean elkarre hori baliokoa izan dadin Administrazioaren aurrean, taldekide bakoitzak (guztiek) baldintza honetan eskatutako dokumentuak aurkeztu beharko ditu, baita ondokoak adierazten dituen konpromiso bat ere: proposamena izenpetu duten enpresaburuen izenak eta zirkunstantziak; haietako bakoitzaren parte-hartzea; kontratuak indarrean irauten duen bitartean, Administrazioaren aurrean haiek guztiak erabat ordezkatzeko dituen ordezkari edo ahaldun bakarraren izena, kontratu honen ondorioz sortuko diren eskumenak erabili eta betebeharrak betetzeko ahalmena izango duena; eta beren gain hartzen dutela aldi baterako enpresa-elkartea eratzeke konpromisoa. Dokumentu hori enpresa-elkartea osatzen duten enpresa guztietako ordezkariak sinatu beharko dute.

Aldi baterako enpresa-taldearen kaudimen ekonomiko eta finantzario eta tekniko edo profesionalari dagokionez, eta ondorioetarako, pilatu egingo dira kide bakoitzak egiaztatutako ezaugarriak. Saikapena eskatuz gero, ezaugarrien pilaketa HAKLAOren 51 eta 52. artikuluetan ezarritakoari jarraituta egingo da.

Saikapena eskatzen den kasuetan, aldi baterako enpresa-elkarte nazionalak eta atzerrikoak (Europar Batasunekoak eta handik kanpokoak) aurkezten badira, ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko



dute: nazionalak eta Europar Batasuneko beste estatu batekoak diren enpresa-elkarteek zerbitzu-kontratista direla egiaztatu beharko dute dokumentu bidez; eta Europar Batasunetik kanpoko beste estatu batekoak direnek, aurrekoei eskatzen zaien dokumentu horren faltara, euron kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatu beharko dute dokumentu bidez. Kontratua aldi baterako enpresa-elkarte bati adjudikatuz gero, elkarre horrek eskritura publiko bidez egiaztatu beharko du bere eraketa, eta horretaz gain, elkarre horri emandako IFK aurkeztu beharko du. Dokumentazio hori guztia kontratua formalizatu aurretik aurkeztu beharko du. Dena den, enpresa-elkarte horren iraupena kontratua amaitu artekoa izango da.

Eskatutako dokumentazioa era bitara aurkeztu ahal izango da: orijinala edo orijinalaren kopia. Kopia aurkeztuz gero, Administrazioak edo notarioak konpultsatuta edo egiaztatuta egon beharko du.

EAEko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatuak honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute: Erregistroaren legegile arduradunak sinatutako indarreko ziurtagiria, eta erregistro horretan dauden datuak baliokoak direla eta indarrean daudela egiaztatzen duen zinpeko deklarazioa. Kontratisten Erregistroari eta sailkapena ezartzeari buruzkoa den otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak arautzen du EAEko Kontratisten Erregistro Ofiziala. Dokumentazio hori aurkeztuz gero, ez dute izango zertan aurkeztu 1 atalean ezarritako datuak eta deskribapenak.

Lizitatuak aukera izango du aipatutako **dokumentazio horren ordez** ardurapeko deklarazioa aurkezteko (Agiri honen I. ERANSKINeko eredia erabilia), eta bertan zera adierazi beharko du: legeak Administrazioarekin kontratatzeke ezartzen dituen baldintzak bete egiten dituela, hain zuzen ere, agiri honetan agertzen diren baldintzak; eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa duela. Kasu horretan, adjudikazioa lortzen duen lizitatuak Kontratazio organoari egiaztatu beharko dio –kontratua adjudikatu aurretik– eskatutako dokumentuak dituela eta baliokoak direla.

Hala ere, prozedura behar bezala burutu ahal izateko, Kontratazio organoak –adjudikazio proposamena egin aurretik– kontratu honen adjudikazioa lortzeko ezarritako baldintzak bete egiten dituztela egiaztatzeke beharrezko den dokumentazioa aurkezteko eskatu ahal izango die lizitatuak. Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean aztertuko da legediak eta agiri honek eskatutako baldintzak betetzen diren ala ez.

2) B GUTUN-AZALA "FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK"

Gutun-azal honetan irizpideen baloraziorako beharrezko den dokumentazioa sartu beharko da, honako hau hain zuzen ere: memoria tekniko zehatza, lanak zelan burutuko diren adierazten duena, eta adjudikaziorako irizpide teknikoaren arabera egingo den balorazioan kontuan hartu beharreko elementu teknikoak egiaztatzen dituzten dokumentuak.

3) C GUTUN-AZALA "FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK"

Agiri honen **II. ERANSKIN**ean agertzen den ereduari jarraituta aurkeztu beharko da. Administrazioak ez ditu onartuko bere ustez oinarritzkoa den informazioan hutsuneak edo akatsak dituzten dokumentuak, ezta zirriborrotuta egoteagatik informazio hori argi adierazten ez dutenak ere. Letraz idatzita eta zenbakiz idatzita agertzen diren kopuruak bat ez badatoz, letraz idatzitakoa hartuko da baliozkotzat; ezpada proposamena osatzen duten dokumentuetatik besterik ondorioztatzen dela. Kontratazio-mahaiak atzera botako ditu (arrazoiak azaltzen dituen ebazpena egin ostean) ondoko proposamenak: aztertu eta onartutako dokumentazioarekin loturarik ez duten proposamenak; kontratua baino prezio altuagoa duten proposamenak; ezarritako ereduari aldaketa handiegia ezarri diotenak; zenbatekoan akats nabarmenak dituztenak; eta lizitatuak berak onartzen duenean aurkeztutako proposamen horretan bideraezin bihurtzen duen akats edo inkonsistentzia bat egin duela. Hala ere, ereduari aldaketa txikiak egiten dizkioten proposamenak –funtsean aldatzen ez badute behintzat– onartu egingo dira.

15.- KONTRATAZIO-MAHAIA



Kontratazio-mahaia ondokoek osatuko dute:

Presidentea: Alkatea edo berak eskuordetutako zinegotzia; bokalak: dagokion arloko zinegotzia eta Udaleko kontuhartzailea, Ekonomia eta Finantza Saileko burua, ondoko talde politikoen ordezkari bana: EAJ, PSE/EE, MBHE eta BILDU; eta Udaleko funtzionario bat idazkari lanetan.

16.- DOKUMENTAZIO OROKORRA KALIFIKATZEKO MODUA

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 160. artikulua eta HAKLAOren 22 eta 81. artikuluek ezarritakoari jarraituta, proposamenak aurkezteko epea amaitu ostean, Kontratazio-mahaia batzar pribatua egin beharko du A GUTUN-AZALA "DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA" irekitzeko, eta batzar horretan ondoko datuak bilduko dituen dokumentu bat sortuko da: batetik, lizitatuile guztien zerrenda, eta bestetik, bakoitzak aurkeztu dituen adierazpenen eta erantsitako dokumentazioaren (inork dokumentazioa eranstean badu) zerrenda.

Kontratazio-mahaia adierazpenean eta erantsitako dokumentazioan akats materialak antzemanen gero, interesdunei jakinaraziko die eta gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango die akats horiek zuzentzeko.

Hori bai, lizitatuile baten dokumentazioak zuzendu ezin diren oinarritzko akatsak edo huts materialak baditu, ez da proposamen hori lizitaziorako onartuko.

Lizitatuilearen kaudimena behar bezala egiaztatzeko, aurreko paragrafoan aipatzen den zuzentzeko aukera horretaz aparte, Kontratazio-mahaia lizitatuileei argibideak eskatu ahal izango dizkie aurkeztu dituzten egiaztagirien eta dokumentuen gainean, eta dokumentu osagarriak aurkezteko ere eska diezaike. Lizitatuileek gehienez ere bost egun natural izango dituzte errekerimendu hori betetzeko eta, edozein kasutan ere, proposamenean onarpen-adierazpena egin aurretik izan beharko du.

17.- ESKAINTZAK IREKITZEA

Zerrendak argitaratu eta aurkeztutako dokumentazioko akatsak eta hutsak (egon baleude) zuzendu ostean, Kontratazio-mahaia dokumentazio hori aztertu eta zehatz adieraziko du lizitazio horretarako nortzuk dauden onartuta eta nortzuk baztertuta, baita baztertze horien arrazoia zein den ere.

Behin hori eginda, onartutako lizitatuileek aurkeztu dituzten B GUTUN-AZALAK "FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK" zabaldu eta aztertuko dira (batzar publikoa izango da).

Horren ostean, Kontratazio-mahaia B GUTUN-AZALAK kontratazioa sustatu duen sailera bidaliko ditu, formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideen arabera baloratu eta balorazio horiek bilduko dituen txosten bat egin dezaten.

Kontratazio-mahaiaren idazkariak eskatutako txostena jasotakoan, Kontratazio-mahaia deituko da berriro ere eta lizitatuileek aurkeztutako dokumentuen kalifikazioen berri emango da. Batzar horretan zera adieraziko da: zeintzuk izan diren onartutako proposamenak eta zeintzuk baztertutakoak, eta baztertutako arrazoiak. Jarraian, C GUTUN-AZALAK "FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK" ireki eta euron barruan agertzen diren eskaintza ekonomikoak irakurriko dira.

Web-orrian argitaratuko da gutunak non, zein egunetan eta zein ordutan irekiko diren.

18.- ESKAINTZAK BALORALORATZEKO ETA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Adjudikazioaren oinarri izango diren irizpideak –garrantzi gutxienekotik hasi eta handienekoraino eta bakoitzari dagokion ponderazioaren arabera– ondoko hauek dira:

FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEENAK



1.- Eskaintako prezioa: Otik 60 puntura bitarteko balorazioa.
Preziotzat zera hartuko da, proposamen ekonomikoan agertzen den kantitatea.
Puntuaziorik altuena emongo jako eskaintzarik merkeenari; eta gainerakoan era proportzionalan egingo da ondoko formularen arabera:
Gehieneko puntuazioa X (eskaintzarik onena/ baloratu beharrekoa)

Proposamen baten prezio-beharapena neurritz kanpoko edo ezohikoa izango da, baldin eta beharpen portzentaje hori lizitazio tipoa baino 20 puntu baxuagoa bada.
Proposamen bakar batek ere ez badu 20 puntuko beharapena gainditzen, eskaintza ekonomikoak honela puntuatuko dira:
Eskaintzarik baxuenari 60 puntu emango zaizkio.
Gainerako eskaintzei ondoko formula aplikatuko zaie:

$$\text{Eskaintza puntuazioa} = 60 \times \frac{\text{ekonomikoaren eskaintzarik merkeena}}{\text{Baloratzen ari diren lizitatzaileren eskaintza ekonomikoa}}$$

Proposamenen batek 20 puntuko beharapena gainditzen badu, puntuazioa eman aurretik, ondoko prozedura bideratuko da:

Kontratazio-mahaiak interesdunei jakinarazi egingo die egoeraren berri eta 20 puntuko beharapena gainditzen duten lizitatzaileri hiru (3) eguneko epea emango die aurkeztu duten eskaintza ekonomikoari buruzko azalpenak eta zehaztapenak eman ditzaten. Azalpen eta zehaztapen horien berri Hirigintza Diziplina, Obra eta Zerbitzuen Sailari emango zaio, euron gaineko txostena egin dezan. Txosten hori Kontratazio-mahaiari aurkeztu beharko dio.

Kontratua Udalak nahi duen bezala burutu ahal izateko, Kontratazio-mahaiak atzera botako ditu 20 puntuko beharapena gainditu duten eskaintza ekonomikoak, baldin eta dagokion sailaren irizpideen arabera beharpen hori behar bezala arrazoitu ez badute.

FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIRENAK

1.- Beharrezko prestakuntzei dagozkien hobekuntzak: Otik 30 puntura bitarteko balorazioa.

Zer da hobekuntza? Agirian agertzen diren baldintzetan eskatzen ez den zerbitzua edo prestazioa, hau da, eskatutakotik gorakoa; betiere, kontratu honen helburuak lortzeko baliagarria bada.

Guztirako puntuazioa era honetara banatuko da:

- Ordu-poltsa, kontratuari prezio igoerarik ekarriko ez diona eta kontratistak Udalari eskainiko diona Baldintza Agirian aurreikusten ez diren ezohiko zerbitzuak betetzeko. Kontratu-urteko orduetan sartuko da atal hau. Gehienez ere 500 ordu/urteko eskainiko dira: 10 puntu
- Kristalen garbiketari buruzko azterketa eta zerbitzua bera hobetzea, Baldintzen Agirian aipatzen diren udal lokalek dituzten barruko eta kanpoko kristalena. Hobekuntza hau Baldintza Teknikoen Agiriak ezartzen dituen irizpideen eta maiztasunaren arabera baloratuko da. 10 puntu
- Zerbitzua hobetzeko lizitatzailiak proposatutako hobekuntzak. Memoria bat aurkeztu beharko dute hobekuntza bakoitzaren berri emateko. Memorian hobekuntza bakoitza aplikatzeak ekarriko lukeen onura teknikoa azalduko da, baita, epeak, gauzatzearen bideragarritasuna eta urte bakoitzerako balorazio ekonomikoa ere; hobekuntza modu objektiboan baloratu ahal izateko: 10 puntu.

2.- Zerbitzuaren azterlana eta lan-egutegia: Otik 10 puntura bitarteko balorazioa.

Guztirako puntuazioa era honetara banatuko da:

- Helburuak eta metodologia: puntu 1.
- Gaur egungo egoeraren diagnosis eta antolaketaren memoria: puntu 1.
- Zerbitzua gauzatzeko egitaraua eta egutegia.
Instalazio bakoitzaren azalera zehaztu beharko da, baita eskaini beharreko zerbitzua, aldizkotasuna, ordu kopurua, giza baliabideak, kontrol sistemak etab.: 2 puntu.
- Ebaluazioaren metodologia eta emaitzen aurkezpena: puntu 1.



- Erabilitako ekipamenduak. Batez ere, zerbitzua eskaintzeko erabiliko den materiala eta makineria: puntu 1.
- ISO 9001, 18001 eta 14001 Arauen egiaztatzeak betetzea: puntu 1.
- Hizkuntza Politika egokia duela egiaztatzen duten Bikain agiri ofiziala izatea: 2 puntu
- Erantzukizun sozialaren kudeaketa-sistema egokia arautzen duen SG21 Arauak edo baliokideak ezarritakoa betetzen duela egiaztatzea (eskumena duen erakundeak emanda): puntu 1.

19.- ADJUDIKAZIOA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailerari Kontratazio Organoak errekerimendua egingo dio, hamar laneguneko epean (errekerimendua jaso duen hurrengo egunetik gora) ondoko egiaztatzeak aurkeztu ditzan:

- Zerga betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrei dagokienean, egunean daudela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Behin betiko garantia eratu dutela egiaztatzen duen dokumentua.
- Baldintza Agiri honen 20. baldintzan eskatzen dena betetzen duen aseguru-poliza.

Ezarritako epe horretan errekerimenduari behar bezala erantzun ezean, lizitatzailerak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da, eta hurrengo lizitatzailerari (eskaintzek lortu duten sailkapen ordenari jarraituta) eskatuko zaio dokumentazio hori, Kontratazio organoak proposamen egokiena aurkeztu duen lizitatzailerari adjudikatuko diro kontratua, SPKLTBren 151. artikulua ezartzen dituen bideak jarraituta.

Kontratua ezingo da formalizatu harik eta lizitatzailerari eta hautagaiei jakinarazpena bidali eta hamabost egun pasatu arte.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea betetzen denean, ez bada kontratuaren formalizazioa bertan behera uzten duen errekursorik aurkeztu, kontratazio organoak zera eskatuko dio adjudikaziodunari, kontratua gehienez ere bost eguneko epean formaliza dezala. Gauza bera egingo da eskumena duen organoak formalizazioa bertan behera uzteko ebatzia atzera botatzea erabakiz gero.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 155.2 artikulua ezarritakoari jarraituta, Udalak kontratua sinatzeari uko eginez gero edo atzera egin ezker, lizitazio-prozesu honek lizitatzailerari eragin dizkien gastuen ordaina Administrazio honek ezarriko du, alde aurretik lizitatzailerari entzun eta euren gastuen justifikazioak aztertu ondoren, gehienezko muga 1.000 eurotan jarrita.

20.- ASEGURUA

Zerbitzua eskaintzeko lanak gauzatzen diren bitartean eragindako kalte guztiak adjudikaziodunaren erantzukizunpekoak izango dira, kalte horien izaera eta tamaina edozein dela ere.

Bere ardurapeko arriskuetatik babestuta egoteko, adjudikazioak irauten duen artean (luzapenak barne) adjudikaziodunak ondoko aseguruak izan beharko ditu kontratatuta –zerrenda honetan agertzen ez diren beste batzuk ere kontrata ditzake, izan ere, helburua estaldura eraginkorra lortzea da–:

- ✚ Gaixotasun- eta istripu-asegurua kontratu honen gauzapenean parte hartuko duten langile guztientzat, baita kontratistak azpikontratitzen dituen enpresetako langileentzat ere; Legeak edo sektoreko hitzarmenek eta hitzarmen partikularrek ezarritakoari jarraituta.
- ✚ Autoentzako derrigorrezko aseguruak, bai adjudikaziodunaren autoentzat eta bai kontratuaren helburuak betetzeko erabiliko diren guztientzat. Aseguru horrek derrigorrezko erantzukizun zibila eta borondatezkoa bete beharko ditu kontrata daitekeen gehienezko mugaraino.



- ✚ Erantzukizun Zibileko bermea, ondokoak barne direla: OROKORRA, LANEKO ISTRIPUAK, LOKALAREN KALTEAK, ISTRIPUZ GERTATUTAKO KUTSADURA, PRODUKTUAK / LANAK AMAITU OSTEKOA. Aseguru honek defentsa eta fidantza zibilak eta penalak bermatu beharko ditu, eta ASEGURUAREN ONURADUNA MUNGIAKO UDALA izango da, hala ere, Udalak HIRUGARREN izaten jarraituko du, kontratu honetan parte hartzen duten langileek bezala. Aseguru konpainiek ez dute subrogaziorako eskubiderik izango, ezta arestian aipatutako inoren kontra egiteko ere hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalteengatik (zuzenean zein zeharka), hutsengatik edo jarduerengatik, ez eta kontratu hau gauzatzean sortu litezkeen akats eta hutsengatik ere.

Bermatu beharreko oinarrizko kopuruak honako hauek dira:

- Erantzukizun Zibil Orokorra: 1.000.000 euro
- Laneko Istripuetako Erantzun Zibila: 1.000.000 euro
- Lokalari eragindako kalteetarako Erantzukizun Zibila: 600.000 euro
- Istripuzko Kutsadura kasuetarako Erantzukizun Zibila: 600.000 euro
- Produktuetarako / Lanak amaitu osterako Erantzukizun Zibila: 1.000.000 euro
- Laneko istripuetan kalteetarako bakoitzarentzat azpi-mugarik gabeko bermea: 300.000 euro.
- Babes eta defentza Zibilak eta penalak: barne.

Aipatutako aseguruaren kontratuei dagozkien primak Kontratatik berak ordainduko ditu, eta euron prezioa Kontratuaren prezioaren barruan sartuta dagoela ulertuko da, ondorio guztietarako. Era berean, eta aseguruaren kontratu horiek indarrean dauden bitartean ezelango ezbeharririk gertatuz gero, Kontratatik ordaindu beharko ditu aseguru horiei ezarritako frankiziaz (frankiziarik ezarrita badago).

Kontratatik indarrean izan beharko ditu uneoro (kontratuak eta luzapenek –baldin badaude– irauten duten bitartean) aseguru polizak.

Kontratatik polizen eta indarreko primen ordain-agirien kopiak aurkeztu beharko dizkio MUNGIAKO UDALAREN ordezkariari ordainketak egin eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan, eta sortzen diren ezbeharren eta istripuen adierazpenen kopiak ere segituan aurkeztu beharko dizkio.

MUNGIAKO UDALAK edozein unetan eskatu ahal izango dio adjudikaziodunari egiazta ditzala aipatutako aseguruak kontratatu, ordaindu eta indarrean dituela, eta euron edukiaren berri ere bai. Kasu horretan, adjudikaziodunak polizen eta ordain-agirien kopia osoak aurkeztu beharko ditu.

Baldintza honetan ezarritako konpromisoak direla-eta kontrataturiko aseguruak ez dituzte mugatuko Kontratu honen bidez Kontratatikari dagozkion betebeharrak eta erantzukizunak; horrenbestez, Kontratatik erantzun beharko die eskatutako muga eta bermeen neurriengatik edo gabeziagatik leporatu dakizkiokeen galerei edo erantzukizunei, betiere aseguruaren frankizien zenbatekoan.

21.- UKO EGITEA EDO ATZERA EGITEA

Kontratazio organoak, kontratua adjudikatu aurretik, edozein momentutan egin diezaioke uko kontratua gauzatzeari interes publikoko arrazoiengatik (arrazoi horiek espedientean justifikatu beharko dira). Era berean, eta epe horretan bertan, Kontratazio organoak prozesuan atzera egiteko aukera ere izango du, baldin eta kontratuaren prestatze-arauek edo adjudikazio-prozeduraren arauak zuzendu ezin duten arau-hausteren bat badago.

22.- KONTRATUA GAUZATZEA

Administrazioak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko du kontratuaren gauzapena, eta eskumen horiek idatziz zein ahoz burutu ahal izango ditu.



Kontratistari edo bere mendeko pertsoneri egotez dakizkiekeen egite edo ez-egiteengatik kontratuaren garapen egokia arriskuan jartzen bada, kontratazioa behar bezala gauzatzeko beharrezko diren neurriak ezartzeko eskatu ahal izango du Administrazioak.

23.- LAN BALDINTZAK

Kontratu honek bete egiten ditu lan gaitetan, gizarte segurantzaren, segurtasunean eta lan-osasunean indarrean dauden lege eta arau guztiak; bereziki enpresa kontratistaren sektoreko mailarik beherengoko hitzarmen kolektiboan ezarrita dauden baldintzak. (Bizkaiko eraikin eta lokalen garbiketa sektoreko hitzarmen kolektiboa. 2013ko abuztuaren 26an, BAO 162 zenbakian).

Hitzarmen horretan jasota dauden baldintzak izango dira kontratua betetako lanak burutuko dituzten langileei jarri ahal zaizkien gutxienekoak, nahiz eta Langileen Estatutuaren 86.3 artikuluan ezarritakoaren ondorioz hitzarmen hori indarrean egon ez.

Aplikatu den lan-hitzarmenaren lan-baldintzak ezin izango dira murriztu enpresak berak bakarrik hala erabakitzen duelako kontratuak dirauen artean.

Kontratu hau baldintza teknikoan Pleguan jasota dagoan langileen subrogazioari lotuta dago, eta enpresaria subrogatuta lotuko da lan arloko eta Gizarte Segurantzako eskubide eta betebeharrak guztietan.

Adjudikaziodun enpresak kontratuaren xedea diren lan batzuk burutzeko hirugarrenekin kontratuak egiten baditu, hirugarren horiek derrigortuta egongo dira lan hori lehendik egiten izan duten langile guztiak subrogatzen, baita horien lan arloko eta Gizarte Segurantzako eskubide eta betebeharrak guztiak ber gain hartzen ere.

Bete ez egitea: Aurreko paragrafoetan ezarri diren betebeharrak kontratuaren bete beharreko baldintza berezitat hartuko dira eta egiaztatu egin beharko dira euren betetze-markoan. Bete ez egitea kontratuaren betebeharren arau hauste oso larritzat hartuko da eta kontratua bertan behera ixteko motibo izan liteke.

24.- GIZARTE BALDINTZAK

Lana burutzeko langile berriak sartu behar diren kontratuaren adjudikaziodun enpresak lehentasunezko josten diren taldeetako langabetuak hartu beharko ditu, gutxienez %50. Horiek Mungialdeko Behargintzat edukiko ditu horrela sailkatuta, aurreko urteko abenduaren 31n egon den langabetuen tasa kontuan izanda.

Aurrean azaldu den ehuneko hori kontratuak iraungo duen epe osoan erabili eta bete beharko da, bai adjudikaziodun enpresak egingo dituen kontratazio berrietarako eta bai horretan beharko diren baja eta ordezkoetarako ere.

Kontratua burutzearekin lotura duten lan-eskaintzen kudeaketarako, adjudikaziodun enpresak Lanbiderekin elkarlanean dabilen Mungialdeko Behargintzaren lan-bitartekaritza zerbitzuak erabili beharko ditu eta, hori posible ez balitz, Lanbideren beraren zerbitzuak erabili beharko ditu orduan.

25.- ANDRA ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO BALDINTZAK.

Adjudikaziodun enpresak andre eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko du ondoko arloetan: lana eskuratzea; sailkapena, sustapena, iraupena eta lan-prestakuntza; lansariak; lan-kalitatea eta – egonkortasuna eta lanaldiaren iraupena eta antolamendua. Zinpeko deklarazioa erantsi beharko du



genero-diskriminazioa dela medio zehapen administratibo edota penalik ez dagoela egiaztatzeko (A GUTUNAZALEAN sartu beharrekoa).

Adjudikaziodun enpresaren Lan-arrisku eta -osasunaren arloko planek barruan eduki beharko dute jasota genero ikuspegia, baita eta arazo eta beharrianak sexuen arabera berezitatea ere.

Horren gainera, adjudikaziodun enpresak sexista ez den hizkera erabili beharko du dokumentazio eta materialean; eta berdintasun-baloreak, aniztasunarekiko eta rol desberdinekiko errespetua adierazten duen irudia sustatu beharko du.

Adjudikaziodun enpresak kontziliazio-neurriak jarri beharko ditu bizimoduaren alde desberdinak bateratzeko, hau da, lanekoa, familiakoa eta pertsonala (Andrazkoen eta gizonezkoen arteko benetako berdintasuna lortzeko martiaren 22ko 3/2007 LOak ezarrita daukanari jarraituta).

Adjudikaziodun enpresak 250 lagun baino gehiago baditu bere plantillan, egiaztatu egin beharko du Berdintasun Plana diseinatuta daukala eta aplikatu egiten dela (Andrazko eta gizonezkoen arteko benetako berdintasuna lortzeko martiaren 22ko 3/2007 LOak ezarrita daukanari jarraituta ((A GUTUNAZALEAN sartu beharrekoa).

26.- HIZKUNTZA BALDINTZAK

Adjudikaziodun enpresak herritarrek euskeraz nahiz gaztelaniaz atendituak izateko duten eskubidea errespetatuta bete beharko du bere lana beti ere, eta lehentasuna emango dio euskarari gaztelaniaren aurretik, bai erabileraren ordenan, bai tipografian, bai idatzikoetarako hizkuntza aukeratzeko orduan eta abar.

Adjudikaziodun enpresak bermatu egin beharko du enpresaren eta Udal Administrazioaren edo/eta herritarren arteko komunikazio, dokumentazio, azterlan, kartel eta abar guztiak euskeraz eta gaztelaniaz aurkeztuko direla, eta horretan Udalak bere komunikazioetan erabiltzen dituen parametro berdinak erabiliko ditu euskera sustatzeko gaztelaniaren gainetik (letra mota, neurria, kokapena eta abar).

Adjudikaziodun enpresak euskara erabili beharko du kontratuaren objektuari lotutako jendaurrekoetan.

Adjudikaziodun enpresak langile berriak kontratatu beharko balitu kontratuaren epearen barruan, exijitu egingo zaio langileok dagozkien postuetarako behar den euskararen ezagutza-maila izatea.

27.- INGURUMENENKO BALDINTZAK

Adjudikaziodun enpresak zinpeko deklarazioa aurkeztu beharko du ingurumenari kalte egiteagatik zehapen administratibo edota penalik ez daukala egiaztatzeko (A GUTUNAZALEAN sartu beharrekoa).

Zerbitzua eskaintzeak dokumentazio idatzia aurkeztea dakarrenean, idatzizko horrek paper birziklatua erabiliz eta orrien alde bietatik egin beharko dira.

Adjudikaziodun enpresak zerbitzua eskaintzeko erabiltzen edo erosten dituan produktuek eta zerbitzu hori betetzeko erabiltzen dituen metodo eta prozedurek ingurumena eta osasun publikoa errespetatzen dutenak izan beharko dute.

28.- KONTRATISTAREN BETEBEHAR ZEHATZAK ETA ESKA LITEZKEEN GASTUAK



Kontratista derrigortuta dago lan arloan, Gizarte Segurantzaren mailan eta laneko segurtasun eta higiene gaietan indarrean dagoen legedia betetzen, eta Administrazioak ez du arlo horretan betetzen ez direnengatik erantzukizunik izango.

Kontratistaren ardura dira kontratuaren lizitazioa eta formalizazioa iragartzeak dakartzan gastu eta zergak, baldin eta horrek eskatuta eskritura publikoa egin behar bada.

Adjudikaziodun enpresarena baino ez da izango kontratua burutzeko hartuko diren langileekiko harreman laborala; beraz, ezin izango dira ezelan ere funtzionario bihurtu eta ez dute Mungiako Udalarekin lan-loturarik izango.

Kontratu honen errejimen juridikoaren ondoriozko betebeharrak orokorrean, ondoko betebeharrak bereziak ere egongo dira:

Adjudikaziodun enpresaren betebeharrak izango dira ondokoak:

1.- Estatuan lan eta industria arloetan dauden babes-legeak betetzea, baita aurreikuspenekoak eta gizarte segurantzakoak ere, osorik eta euren araudi guztia kontuan hartuta; eta Erakunde kontratatistak ez du ezelango erantzukizunik izango arau horiek bete ezean edota Kontratistak lan arloan egin lezakeen beste edozein arau-hausterengatik. Hori dela eta, adjudikaziodun erakundeak beti euki beharko ditu prest Udalaren eskura jartzeko betebeharrak horiek betetzen direla erakusten duten egiaztagirak.

2.- Zerbitzuetan erabiltzen diren langile, ibilgailu edota tresnek sortzen dituzten istripuei erantzuteko kalte-ordain zibilak egitea. Dena den, horrek ez die kalterik egingo kalteak sortu dituztenen aurrean edo arriskueterako aseguru konpainien aurrean Kontratistak dituen eskubideei. Era berean, bere langileek egiten dituzten hutsen kasuan, Kontratista izango da erantzulea –arloan zibilean eta administratiboan- Udalaren aurrean; eta kalte-galeren ordaina eman beharko du edo doloz edo erruz zerbitzuak txarto bete eta hirugarrenei kalteak sortzen bazaizkie; berdin ondasunei zein pertsoneri zein instalazioei sortzen bazaizkie, partikularrenak zein Udalarenak direnean. Dena den, horrez gainera, kontratu-zehapenak ere ezarri ahal izango dira.

3.- Kontratistaren ardura izango dira kontratuaren xede diren zerbitzuak eskaintzeak behar dituen jarduera eta baliabide materialei dagozkien zerga, eskubide eta tasak, estatu eta probintzia mailako zergak; udalerrri mailakoak ez ostera, horietatik salbuetsita egongo da eta.

4.- Kontratistak ezin izango ditu Udalaren baimen barik kontratuari lotutako eskubide eta betebeharrak azpierrentan eman, laga edo inori pasatu.

5.- Kontratistak utzi egingo du Alkatetzak erabakitzen dituen lanak, materialak eta ekipamenduak ikuskatzen eta lagundu egingo du horretan.

6.- Kontratistak izendatu egin beharko du Udalaren eta adjudikaziodun enpresaren arteko harremanetarako langile edo ordezkaria.

7.- Kontratistak uniforme egokia eskaini beharko die bere langileei, euren itxura beti egokia izan dadin. Uniforme guztiek izan beharko dute adjudikaziodun enpresaren anagrama.

8.- Behin betiko fiantza ordaindu beharko du eskatzen den epearen barruan.

9.- Kontratistak hileroko aurkeztuko dio Zerbitzuen Buruari Gizarte Aseguruen ordainketaren kopia bat, diru-sarrera hori egin dan erakunderen zigilua bertan dela.

10.- Kontratistak zerbitzu horietarako erabiliko diren ibilgailu eta material guztiak garbi eta desinfektatuta eukiko ditu beti.

11.- Greba edo ugazabek erabakitako itxiera gertatuko balitz, Kontratistak Alkatetzaren eskura jarri beharko ditu zerbitzuari lotutako material eta elementu guztiak, eta Autoritate horrek zerbitzua eskaintzen jarraitzeko eskaintzen dizkion langileen ardura ere hartu beharko luke, eta edozein kasutan ere Udal Administrazioari aipatutako egoerok hasi baino 48 ordu lehenago jakinarazi beharko lioke hori.

29.- KONTRATUA B URUTZEAN HIRUGARRENEI SORTUTAKO KALTEENGATIK KONTRATISTAK DUEN ERANTZUKIZUNA



Kontratista izango da kontratuaren helburua betetzeko egiten diren lanen ondorioz sortzen diren kalteen arduraduna, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 214 artikulua xedatutakoari jarraituta.

30.- KONTRATU ALDAKETAK

Kontratazio organoak dauka interes publikoko arrazoiak direla medio kontratua aldatzeko eskumena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 219 eta 306 artikuluek xedatutakoari jarraituta.

31.- EPEAK BETETZEA ETA ATZERAPENENGATIK EZARRIKO DIREN ZIGORRAK

Adjudikaziodunak bete egin behar ditu kontratua burutzeko epea eta Udalak ezartzen dituen epe partzialak. Aipatutako epeetako edozein bete eta kontratista egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla medio atzeratu egin bada, Udalak aukera izango du edo kontratua amaitutzat jotzeko edo zehapen ekonomikoak ezartzeko. Zehapen horien zenbatekoa Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 212.4 artikulua xedatutakoari jarraituta zehaztuko da.

Bermea galtzetik edo zehapen ekonomikotatik aparte, kontratistaren atzerapena dela medio, kalte-ordainengatik dirua kobratzeko eskubidea izan lezake Udalak.

Atzerapenaren errua ezin bazaio kontratistari egotzi, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 213 artikulua bere 2. zatian xedatutakoari jarraituko zaio.

Edozein kasutan ere, kontratistaren berandutzak ez du beharko Udalaren aldetik alde aurretiko interpelazio edo intimaziorik.

32. DATUEN BABESA

Kontratuak datu pertsonaletara jo beharra badakar, kontratistak bete egin beharko du Sektore Publikoko Kontratuaren legearen Restu Bateginaren hogeita seigarren xedapen gehigarritik eratorria, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999ko Lege organikoaren eta Lege horren garapenerako araudiari dagokionean.

33.- KONTRATUA ETETEKO ARRAZOTIAK

Zerbitzuen kontratua eteteko arrazoi izango dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 223 eta 308 artikuluetan ezartzen dena eta ofiziozko kontratazio organoak erabakiko du hori; edo kontratistak berak eskatuta ere egin liteke, horrek esateko daukana entzuteko aukera emango zaiola bermatuta, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 225 eta 309 eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen araudiaren 109rik 113ra bitarteko artikuluetan zehazten diren ondorioak izango ditu.

34.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA JURISDIKZIOA

Kontratazio organoak kontratua interpretatzeko eskubidea dauka, baita hori beteteak sortzen dituen zalantzen gaineko erabakiak hartzeko ere; horrez gainera, arrazoi publikoak direla medio aldatu egin lezake edo etetea erabaki, eta horren ondorioak zehaztu; beti ere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren muga eta eraginen barruko esparruan.

Idazkaritza
Secretaría



MUNGIA
UDALA
AYUNTAMIENTO

Kontratutik eratorritako auzigaiak administrazioarekiko auzien araudiaren arloan sartuko dira; dena dela, alderdiek horrela erabakiz gero, auziak arbitrajepean jar litezke, indarrean dagoen legediak ezarritakoari jarraituta.

Dokumentu hau ondokoak onartu du:
Mungiako Udalak, 2014ko irailaren 26an



I. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN EREDUA, MUNGIAKO UDALARI AURKEZTEKOA

LIZITATZAILEA:

Izen-abizenak:.....

NAN zk.:

Helbidea:

Enpresa baten ordezkari lanetan jarduten badu, hona hemen enpresaren datuak

Izena:.....

Helbide soziala:..... IFK :.....

Tel: Helbidea elektronikoa:.....

Ordezkaritza mota: administradore bakarra apoderatua

LIZITATZAILEAK BERE ERANTZUKIZUNPEAN ONDOKOA ADIERAZTEN DU:

a) Ordezkatzen duen enpresak bete egiten dituela legez eskatutako eta agiri honetan eskatutako baldintzak; eta ez duela legeak –Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikulua– Administrazioarekin kontratatzeke ezarritako debekurik.

b) Ordezkatzen duen enpresari ez diotela zehapen administratiborik edota penalik ezarri genero diskriminazioa kasuengatik.

c) Ordezkatzen duen enpresari ez diotela zehapen administratiborik edota penalik ezarri ingurumenaren kontrako ekintzak gauzatzeagatik.

d) Ordezkatzen duen enpresak (250 lagun baino gehiago baditu bere plantillan) egiaztatu egiten duela Berdintasun Plana diseinatuta daukala eta aplikatu egiten dela; andrazko eta gizonezkoen arteko benetako berdintasuna lortzeko martxoaren 22ko 3/2007 Legeak ezarritako daukanari jarraituta.

e) Baldintza agirietan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten dokumentuak aurkezteko konpromisoa hartzen duela kontratazio-mahaiak hala eskatzen dionean; eta adjudikazio proposamenean bera bada aukeratua, adjudikazioa gauzatu aurretik aurkeztuko dituela.

f) Lizitazio honekin lotutako legezko errekerimenduak, komunikazioak eta jakinarazpenak egiteko erabili beharreko datuak ondokoak direla:

Harremanetarako pertsona:.....

Helbidea: PK:.....

Udalerria:

Telefonoa (1): Telefonoa (2):.....

Fax zk.:

Helbide elektronikoa:

.....(e)n, 2014ko(a)ren(e)(a)n.

Sin.:

Enpresaren zigilua



II. ERANSKINA

Proposamen ekonomikoa (eredua)

LIZITATZAILEA:

Izen-abizenak:.....

NAN zk.:

Helbidea:

Enpresa baten ordezkari lanetan jarduten badu, hona hemen enpresaren datuak

Izena:.....

Helbide soziala:..... IFK :.....

Tel.:..... Jakinarazpen eta komunikazioetarako helbidea elektronikoa:.....

Ordezkaritza mota: administradore bakarra apoderatua

LIZITATZAILEAK BERE ERANTZUKIZUNPEAN ONDOKOA ADIERAZTEN DU:

I.- Ondoko helburua duen kontratua adjudikatzeko lizitazioaren jakitun dela:
.....
.....

II.- Baldintza Teknikoen eta Baldintza Administratibo Berezien Agirien edukiaren berri baduela, baita kontratu hau arautuko duten gainerako dokumentazioarena ere, eta onartu eta men egiten diola guzti-guztiari.

III.- Ordezkatzen duen enpresak bete egiten dituela indarrean dagoen legeak enpresak zabaltzeko, instalatzeko eta funtzionamenduan izateko ezarrita dituen baldintza eta betebeharrak.

IV.- Kontratu honen bidez eskaini nahi den zerbitzua dela-eta, ondoko eskaintza aurkezten duela:

PREZIOA (proposatutako kopurua ezingo da 409.002,57 eurotik gorakoa izan)euro/urteko (€ /urteko)
BEZ: %21euro. (€)
TOTALeuro/ urteko. (€ /urteko)

.....(e)n, 2014ko(a)ren(e)(a)n.

Sin.:
Enpresaren zigilua



Nº Expte: 000037/2014-A.20
07-05-2014

PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES QUE REGULA LA ADJUDICACIÓN, MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO Y TRAMITACIÓN ORDINARIA, DEL SERVICIO DE LIMPIEZA DE LEGARDA, LAUKARIZ, URINARIOS PUBLICOS, PABELLÓN DE OBRAS, OFICINAS MUNICIPALES, JUZGADO, OLENTZEROREN ETXEA, EPA, LOCAL ANDRAMARI, PROTECCIÓN CIVIL, CRUZ ROJA Y EDIFICIO POLIVALENTE

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que en base al presente pliego se realice tiene por objeto la prestación del servicio de limpieza de Legarda, Laukariz, urinarios públicos, pabellón de obras, oficinas municipales, Juzgado, Olentzeroren Etxea, EPA, local Andramari, Protección Civil, Cruz Roja y edificio polivalente que comprenderá los servicios descritos en el Pliego de Cláusulas Técnicas.

